



GERRA ETA BAKEA

IRAKASLEENTZAKO AZALPENAK



UNITATE DIDAKTIKOA

GERRA ETA BAKEA

Publikoa:

DBH 4, Erdi maila, Batxilergoa, Lanbide heziketa eta Helduen hezkuntza.

Taldeak: Gehienez 30 pertsona.

Iraupena: Ordu 1 30'.

Materiala:

- Lan-fitxa guk ematen dugu.
- Axota edo arkatza ikasleek ekarri behar dute. (Ez da beharrezkoa beste paperik, ez baldin bada ikastetxeak berak erabaki duela galdekari edo ariketa bereziren bat egitea, noski.)

Erreserbak:

Ez ahaztu alde zuretik erreserba egitea
(Tel.: 943 88 99 00)

Lehen Guda Karlistan oinarrituz, gatazkaren adibide gisa indarkeriaren sustrai, modu eta ondorioei buruz gogoeta egiteko proposamena. Gaurkotasun osoa duen hausnarketarako ibilbidea, gatazken ebazpenerako bake prozesuak ulertzen laguntzen duena.

GURE PROPOSAMENA:

Bortizkeriaren fenomenoak ulertzeko bere testuinguruan kokatu behar da. Bortizkeria, aldiz, ez da sintoma hutsa izaten, agertu orduko eragile bilakatzen da. Lehenengo Karlismaldia gugandik nahikoa urruti dago denboran, karlistek eta liberalek defenditzen zituzten ereduak ez dute gure errealitatean zentzurik. Baina Foruen gaia arazo dinastikoari nagusitu zitzaionez, Karlismaldia gaur egungo problema garrantzitsu baten sorreratzat jotzen dira, euskal lurraldeen eta espainiar Estatuaren arteko harremanena.

Batetik urruti, bestetik hurbil, oreka mantentzen jakinez gero erakargarria izan daiteke garai historiko hau bortizkeriaren perspektibaz aztertzea. Izan ere, proposamen hau beste ibilbide batekin edo azalpen zabalagoekin bateragarria da inolako problemarik gabe. Arriskuak ere badaude, noski, bizi garen errealitatean bakea esan orduko zer esan ez baina nork esan begiratzen baita. Egia da karlismo hitzak konnotazio oso desberdinak dituela gaur egun, batzuentzat positiboak eta besteentzat negatiboak, gaztetxo gehien gehienek inolako erreferentziarik ez badute ere. Historia-museo baten egitekoa da, besteak beste, aurreiritziak eta alderdikeriak zuzentzeaz gain gertaera historikoak anakronismo eta estrapolaziorik gabe azaltzea, eta Zumalakarregi Museoak horretan dihardu.

Ibilbide hau ez da museoan barrenako paseo bat izango. Ikasleei datuak biltzeko ez ezik pentsatzeko eskatuko zaie, gogoeta egiteko. Eztabaidak garrantzi handia izango duenez, gidariaren eta irakasleen lana eztabaida piztu eta bideratzea izango da.

Kontsultak eta informazioa:

ZUMALAKARREGI MUSEOA
Muxika egurastokia 6
20216 ORMAIZTEGI
(Gipuzkoa).
Tel.: 943 88 99 00
Faxa.: 943 88 01 38
mzumalakarregi@gipuzkoa.net
<http://zm.gipuzkoakultura.net>

Ordutegia:

Asteazkenetik ostiralera:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00.
Larunbat, igande eta jai egunetan:
10:00 / 14:00 - 16:00 / 19:00